



Eskubaloiko lehen taldeak igoerako play-offaren lehen partida irabazi zuen, partida zaila jokatu ostean

Sinadura kanpaina martxan jarri du 'Andoain Esan' taldeak

Udazkenean erabakitze eskubideari buruzko herri kontsulta antolatu nahi dute, eta horretarako sinadura ekitaldiari ekin dio 'Andoain Esan' ekimenak.



Giza-katea, taldeko argazkia eta sinadura bilketa egin zituzten aurreko larunbatean Goikoplazan, ekimenaren aurkezpenean.

Lehen agerraldi publikoa izan zen, hainbat astez lantaldea martxan jarri eta gero. Esan daiteke abiapuntua arrakastatsua izan zela, lauhun herri-kide inguru hurbildu baitzen Goikoplazako ekitaldira. Manifestua irakurri zuten euskaraz eta gaztelaniaz, eta ondoren giza-kate baten bitartez Goikoplaza osoa hartu zuten. Giza-katearen amaieran, Ane Amutxastegi ekimenaren boze-

ramaileetakoak boto 'sinboliko' sartu zuen plazan bertan zegoen hautestontzian. Txalo artean amaitu zen ekitaldi sinboliko hura. Segidan, taldeko argazkia atera zuten udaletxearen pareko eskailaratan.

Eta ekitaldiari amaiera emateko, sinadurak jasotzeari ekin zioten. Izan ere, hurrengo egunetan biztanleria osoaren %10aren sinadurak beharko dituzte herri kontsulta egin ahal izateko.

'Andoain Esan' ekimenak bulegoa zabaldu du Kaleberrian, Delgado liburudendaren ondoan.

Andoain Esan bulegoa:
Kaleberria, 1. Andoain.
11:00-13:00 / 17:00-20:00

Liburuaren eguna Urnietan



Larunbat honetan, goizeko 11:00tan hasita, **Infistorrak** liburuen postua jarriko du San Juan plazan. Liburuak saltzarekin batera, **Pirritx eta Porrotx** pailazoaren maiztaren 26ko ikuskizunerako sarrerak salgai ipiniko ditu. Eta arratsaldean kontzertua antolatu du Saroben, Urnietako **Lappa** eta **Lear** taldeen eta Donostiako **Bi zaldi** taldearen parte hartzearekin.

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]

Alex Txikon Saroben

Ostiral honetan ikus-entzuzko eskainiko du.

[KIROLAK, 10. ORRIALDEA]

Andoain jaietan murgilduko da

Pregoiarekin, aurtengo Santa Krutz jaiei hasiera emango diote ostiral arratsaldean.

Zumea plazan haur pregoiarekin, eta ondoren Zubiaurre etxetik Txindoki tabernako kideek eskainiko duten helduen pregoiarekin, ostiral honetan ando-

aindarrek sei egunetz luzatuko diren Santa Krutz jaiei hasiera emango diete. Danborradak, erraldoi eta buruhandiak, txaranga..., dozenaka ekitaldi iraga-

rri dituzte. Santa Krutz egunarekin amaituko dira jaiak, maiztaren 5an. Bezperan, maiztaren 2an, Kuadrilen eguna.

[GEHIGARRI BEREZIA]



EUSKARAZ BIZITZEKO HURRENGO URRATSA

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

APIRILAREN 6TIK AUTOLIKIDAZIOA ONARTZERA KOAN, SAKATU EUSKARAREN AUKERA

Informazio gehiago:
<http://euskara.buruntzaldea.eus>
f Albistea elkarbanatu eta opariak eskuratu!
Andoain / Astigarraga / Hernani / Lasarte-Oria / Urnietako / Usurbil UDAL EUSKARA BATZORDEAK



KEPA ALTUBE ERAÑA IKASMATERIALA EUSKARATZEKO EKIMENAREN KUDEATZAILEARI ELKARRIZKETA

Lanbide Heziketako materiala euskaratzeko lan itzela

'Laneki' euskara sustatzeko Lanbide Heziketako elkarte da eta 2001az geroztik 860 moduluertarako 710 ikasgai euskarara egokitu dituzte. Jakinbai.eus webgunean euskarara ekarritako ikasmaterial

guztia eskegita dago. Langintza horretan meritu handia dute irakasle bolondresak. Baina ezin aipatu gabe utzi erakunde ezberdinen sustengua, tartean Buruntzaldeko Udaletako euskara zerbitzuena.

Laneki elkartearen eta jakinbai.eus webgunearen sorburua gabezia batetik abiatzen da...

Lanbide Heziketan euskaraz irakasteko kezka hori aspaldikoa da. Irakasle talde batek ekin zion lanari, eta 2001ean sortu zen euskara sustatzeko Lanbide Heziketako Laneki elkarte. D ereduaren alde egiteko apustua egin zen orduan. Ikasmateriala, ordea, erdaraz zegoen. Bestalde, ikasgaiak ugari dira: Lanbide Heziketan, zortzirehundik gora. Argitaletxeen aldetik oso zail zegoen, eskaintza hain dibertsifikatua izatean ikasmaterial bakoitzaren hartzaile kopurua oso txikia delako. Ez zen, beraz, errentagarria. Bide hori alde batera utzita, irakasleak hasi ziren euskarazko ikasmateriala sortzen.

Hasiera hasieratik webgune bat sortzea erabaki zen, digitalki eskegi eta baltzeko.

Laneki Helte Lanbide Heziketako ikastetxeen elkarteak eta Ikaslan Gipuzkoa Lanbide Heziketako Institutu Publikoen Elkarteak sortu zuten.

Internet erdigunean ipini zuten. Oso garbi eduki zuten hori...

Ekoizpen gastu handia saihestu genuen, eta ikasmateriala eraldatzeko eta berrietzeko aukera eskaintzen digu webguneak. Abantaila horiei heldu diegu aurrera egiteko. Sarearen iraultza hori garrantzia handikoa izan zen euskarazko ikasmaterialak landu ahal izateko. Sortu dugun erremintaren antzeko eredurik ez dugu inon topatu, orain arte. Alta emandako 5.000 erabiltzaile ditugu, material hori eskuratu eta irakaskuntzarako erabiltzen ari direnak.

Urte urte ikasmaterial gehiago euskaratzen ari zarete. Oker ez bagaude, 2016an 41 ikasmaterial ezberdin euskaratu zenuen. Zeren arabera erabakitzen duzue zein den lehentasuneko?

Ikasturte hasieran, irailean, plangintza egiten hasteko irakasle taldeen artean galdeketa luzatzen dugu. Zerrenda jasotzen dugu, une honetan 80 proposamen ezberdin ditugu, eta ikasmaterial bakoitzaren hartzaile kopurua eta beste hainbat faktore kontuan hartuz, proposamen bakoitzari puntuazioa ematen diogu. Aurrekontuaren arabera euskaratzen dugu ikasmateriala, urtero-urte-



Kepa Altube Eraña Laneki euskara sustatzeko Lanbide Heziketako elkartearen kudeatzailea da.

ro. Irailetik abendura bitarteko prozesua da hori. Ondoren, argitaletxe ezberdinekin euskaratu beharreko materialaren itzulpen baimenak negoziatu behar izaten ditugu. Diru zati handi bat baimen kontuetan joaten zaigu. Baimekin lortuta, euskaratzeari ekiten diogu.

Zenbaterainokoa da Buruntzaldeko Udalen ekarpenaren garrantzia?

Erabatekoa. Buruntzaldeko Udalen aldetik sostengu garrantzitsua jasotzen ari gara. Eta ez bakarrik sostengu ekonomikoa. Egitasmoarekin bat egiten dutela sentitzen dugu: Zabalkundearen laguntza ematen digute, ekarpenak egiten dizkigute. Harreman estua izaten dugu ikasturte osoan zehar.

Eskualdeko euskara zerbitzuak teknikariekin eta Lanbide Heziketa ikastetxe ezberdinetako hizkuntza nor-

malkuntzarako arduradunekin lortu dugun harreman horri garrantzia handia ematen diogu.

Lanbide Heziketari eta enpresa munduari lotuta, iaz garrantzia handia eman zitezaion Lanpres gidari. Ekoizpen lan hori ere zuena da. Zer da Lanpres?

Lanbide Heziketan euskaraz ikasitako ikasleak, maiz, enpresa munduan praktikaldia egiterakoan, erdarara jotzeko joera izaten zuen. Eta hori bideratzeko eta zuzentzeko eskaera zehatza jaso genuen. Gida bat ekoiztea erabaki genuen, paperean eta internet sarean dagoena. Funtsean, ikasleak euskarazko praktikaldia egiteko argibideak eskaintzen dira gida horretan. Orain arte egiten ez zen galdera sinplea dago gidaren oinarrian: Enpresako instruktorea euskal hiztuna al da edo ez? Euskalduna

ESKUALDEAREN EKARPENA

Andoain, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbil herrietako udal laguntza eta probintzia nahiz Euskadi mailako erakundearen finantziarioari esker ikasmateriala euskaratzen dihardu Laneki elkarteak. **Buruntzaldeko** Udalek 7.000 euroko diru ekarpena egin zuten iaz, eta egitasmo osoaren aurrekontua 186.000 eurokoa da.

IKASMATERIALA

Jakinbai.eus webgunean ehunka ikasgai eskegita daude, Euskal Herri osoko Lanbide Heziketa ikastetxeetan erabili ahal daitezkeenak. Euskaratutakoa ugaria eta zabala da, alor guztietan dagoena. Besteak beste, administrazioa eta kudeaketa, elektrizitatea eta elektronika, eraikuntza eta obra zibilak, fabrikazio mekanikoa, garraio eta ibilgailuen mantentzea, informatika eta komunikazioa, merkataritza eta marketina, osasungintza, ostalaritza eta turismoa, segurtasuna eta ingurumena, zurgintza, eta abar luzea.

LANPRES GIDA

Iazko berrikuntzarik nabarmenetakoa izan zen Lanbide Heziketan. Proiektuaren xedea Lanbide Heziketako ikasleek lantokiko prestakuntza eta ikasketa duala euskaraz egin ahal izatea da. Hori ahalbidetzeko, **Eusko Jaurlaritzak** enpresetarako gida aurkeztu zuen. Lan horren ardura Laneki elkartearena izan zen.

baldin bada, informazio osoa eskaintzen zaio. Galdera sinple bat funtsezkoa izan daiteke. Dagoeneko praktikaldia egiteko idazkietan galdera hori txertatzea lortu dugu. Buruntzaldea egitasmo berri horren eragile nagusietakoa izan da.

Gidak sei atal ditu, lau atal ikastetxei bideratuta eta ikaslea praktikaldian hartuko duen enpresari bideratuta beste bi atal.

Bada, dagoeneko enpresa mundutik antzeko gida berria egiteko proposamena jaso dugu, baina bereziki enpresa ikuspuntutik. Zeregin horretan gabilitza, Lanpres Gida izena hartuko duena.

HIZKUNTZA EREDUAK DBH, BATXILERGOA, ERDI MAILAKO ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN

Eskualdeko matrikulazio datuen aletzea

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan euskarazko eskaintza nagusi den heinean, Erdi mailako eta Goi mailako heziketa zikloetan aztertu beharreko fenomenoak gertatzen ari da. Datuei erre-

paratuta, Lanbide Heziketan tarteko eredu den B eredu euskara hutsezko D ereduaren kontura hazten ari da. Bien bitartean, A eredu ez da aldaketarik sumatzen. Izatekotan, pittin bat gorago egiteko.

Euskarazko heziketaren aldeko apustua egiten duten erakundeen aldetik, aztertu beharreko fenomenoak da Lanbide Heziketako maila ezberdinetan hizkuntza eredu bakoitzean gertatzen ari den fenomenoak. DBHn eta Batxilergoan D eredu nagusi den moduan, Erdi mailako eta Goi mailako zikloetan A ereduak pisu handia izaten jarraitzen du. 2015-2016 ikasturteetik aurrera tarteko eredu den B eredu ofiziala izaten hasi zenez, goranzko igoera pairatzen ari da. Baina bitxia badirudi ere, igoera hori euskara hutsezko D ereduaren eskaintzaren kontura gertatzen ari da. Esan nahi baita D eredu matrikulatutako

ikasle kopurua jaisten ari dela B eredu ezarri denetik. Helburua ikasleak A ereduetik B ereduera erakartzea bazen ere, oraingoz kontrako efektua gertatzen ari da. Ondoko taulan ondoko ikusten denez, A ereduak ez baitu jaisierarik pairatu. Are gehiago, izan duen aldaketa goranzkoa izan da. Zailtzarrik gabe, hezkuntza eta euskara arloko eragileek ondo aztertu beharreko fenomenoak da. Oraindik ere A ereduak pisu handia dauka eskualdeko Lanbide Heziketa zikloetan. Goi mailakoetan, gaur gaurkoz, ikasleek gehien aukeratzen duten ereduak da. Eta Erdi mailan, bigarren aukera da.

MATRIKULAZIOA EREDU EZBERDINAREN ARABERA | 2016-2017

DBH

Ikasturtea	Ikasleak	A	B	D
2014-15	2180	%0	%4,9	%95,1
2015-16	2134	%0	%5,8	%94,2
2016-17	2354	%0	%5,3	%94,7

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Ikasturtea	Ikasleak	A	B	D
2014-15	379	%44,6	%25,6	%29,8
2015-16	413	%37,8	%31,5	%30,8
2016-17	418	%38,5	%46,9	%14,6

BATXILERGOA

Ikasturtea	Ikasleak	A	B	D
2014-15	703	%6,8	%5,7	%87,5
2015-16	754	%7,2	%5,4	%87,4
2016-17	760	%5,3	%5,1	%89,6

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Ikasturtea	Ikasleak	A	B	D
2014-15	1046	%45,9	%21,6	%32,5
2015-16	953	%45,4	%20,4	%34,2
2016-17	1069	%45,7	%22,5	%31,9

*ITURRIA: BURUNTZALDEKO UDALAK



Andoain, Astigarraga, Hernani,
Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo
Udaletako Euskarako Batzordeak
www.buruntzaldea.eus

11 aukera, 11 Lan



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Lanbide Heziketan ERE D ereduak

LARUNBAT GOIZEAN LIBURU SALMENTA SAN JUAN PLAZAN, ETA ILUNTZEAN MUSIKA EMANALDIA SAROBEN

Liburuaren eguna Urnietan

Iñistorra euskaltzaileen biltzarrak larunbat honetan Liburuaren egunaren edizio berria antolatuko du, liburuak erosteko postua jarritz eta maiatzeko pailazoen emanaldirako sarrerak salgai ipiniz.

Goizeko 11:00etatik 14:00etara, beraz, liburuak eta sarrerak salgai izango dira. Iluntzeko 19:00etan hasita musika emanaldia izango da Saroben, Urnietako Lappa edota Lear taldeen parte hartzearekin.

Ezaguna da Iñistorraren konpromisoa euskararekin, eta larunbat honetarako literatura eta musika jardura bana antolatuko ditu. Goizean liburuaren postua ipiniko dute San Juan plazan, eta iluntzean emanaldi akustikoa antolatuko dute. Kontzerturako sarrerak dagoeneko salgai daude Bikain kafe-tegian eta Xauxar tabernan. Aurreko Aiurri astekarietan Lappa eta Lear taldeen elkarriketak argitaratu ziren, eta oraingoan Donostiako Bi Zaldi taldearena.



Eneko Bola Zulaika eta Eneko Bustillo Lappa taldeko kideak dira.



Maialen Miranda eta Legarra ahizpak dira Lear taldeko hiru kideak.

Bi zaldi taldea, larunbat honetan Saroben

Liburuaren eguneko ospakizunaren harira, apirilaren 29an arratsaldeko 19:00etan Saroben antolatu den kontzertuan izango da Donostiako Bi zaldi taldea. Aurreko asteetan orrialde hauetan elkarriketatu ditugu Urnietako Lappa eta Lear taldeak, Saroben arituko direnak ere. Gartzot Unsain taldekideak eman digu Bi zaldiren nondik-norakoen berri.

Aurkeztu Bi zaldi taldea.

Gatzot Unsain: Bi Zaldi taldea 2014ko uda inguruan sortu genuen Beñat Antxustegik eta biok. Donostialdeko musika taldeetan aritzeagatik lagunak ginen ordurako. Gure egitasmoa uda hartan ezagun bihurtu zen abesti baten euskarazko bertsio bat egiteko asmo xumetik jaio zen, Zaldibiko Haize Bazterrek sorkuntza espazioan. Lagunartean abiatu ginen.

Lehen emaitza hori ederra izanda, inertziaz beste bertsio batzuk egiteari heldu genion, inolako presarik gabe, gure beste proiektuetatik aldendu. Ariketa gisa, akaso. Baina kontzertuak ematen hasi ginen edonon, formatu oso malgu eta erraza delako: lagunenek, tabernetan, antzokietan, gaztetxeetan edota kalean bertan.

Asmo xume horrek espero ez genuen erantzun ederra izan du, eta gure ibilbidea jen-



Gartzot Unsain eta Beñat Antxustegi dira Bi Zaldi taldeko kideak.

dearen nahiak sortu du, kontzertu proposamenak guk espero gabe etorri zaizkigu eta. Bidean Eneko Sierra saxofojolea batu zaigu zuzenekoetara, eta hala gabiltza, kantuan, edonon.

Nondik dator taldearen izena?

G.U.: Donostiarrak gara baina proiektu hau Zaldibin jaio zen eta sorlekuari omenaldia egin nahi genion. Bi kide ginen, zaldi zaleak akaso... ez dakit. Bi zaldi!

Zerbait aurreratu diguzu baina nolakoa izan dela esango zenukete herritarrengandik jasotako harrera?

G.U.: Nik uste espero ez genuen harrera izan duela proiektuak. Lehenik eta behin, esan, kitarra hutsez eta harmo-

niaz baliatzen gara. Gure proposamenak badu halako tristura alai bat, erraz gozatzeko. Gainera, naturaltasun osoz ekin genion kantatzeari, asko pentsatu gabe, gogoak hala eskatzen zizulako. Nik uste entzuleak naturaltasun hori bere egiten duela, eta bi gazte kantuan ikustea ederra dela, gauzez ahazteko, zerbait oroitzekeo...

Nola deskribatuko zenukete zuen taldea, eta egiten duzuen musika?

G.U.: Gure proposamena ingelesezko abestiak euskaratzeko asmoarekin jaio zen bikote akustikoa da. Bi ahots eta kitarra bat –zuzenean saxoa ere bai!– soilik. Bertsioetatik jaio arren gure abestiak sortzera bideratu dugu jarduna orain,

beraz, bertsioetatik jaio, hemendik edan, baina bere ukitu bereizgarria bilatu nahi duen bikote akustikoa gara esango nuke. Egiten duguna ederra dela esango nuke, guretzat behintzat, harmonian oinarritutako musika lasaia.

Zeintzuk dira zuen erreferentzia-ko taldeak, musikariak?

G.U.: Gustu ezberdin eta amankomun asko ditugu biok. Zerranda amaigabea izan liteke. Akaso, Bi zaldik, Simon and Garfunkel ditu erreferente gisa, euren planteamendurengatik batez ere. Baina, musikalki denak eragiten dio sortzeko gogoari, beraz, errefente handiena gure sortzeko gogoia izango litzateke.

Norenak dira zuen abestien letrak, ze hizkuntzetan?

G.U.: Letren sortze prozesua nire lana izaten da gehienetan, eta Beñatek egiten du musika moldaketa, nahiz eta elkarri laguntzen diogun. Euskaraz izaten dira hitzak, asmo horrekin hasi ginen, ingelesezko sonoridade hori euskarara bihurtu zitekeena nire uste sendoarekin.

Euskaraz aritu gara eta arituko gara, hori baita gure hizkuntza eta hala sentiarazi nahi ditugu gauzak, hala sentitzen ditugulako.

Zein gai jorratzea duzue gustuko?

G.U.: Gai nagusia beti da urrean duguna. Bizitza, joan etorriak, poztasuna, eta nola ez zauriak. Hausnarketa bideratzen duten hitz autobiografikoak lirareke, ez gureak soilik, edozein izakirenak.

Ze publiko motari zuzendua dago zuen musika?

G.U.: Gure musika, egunerokotasunaren inertziatik jaitsi eta 45 minutuz, lasai, kafe edo dena delako baten inguruan, gustora egon nahi duen edonori zuzendua dago.

Talde honi ibilbide luzea aurreikusten diozue edo momentuko zuen musika zaletasuna asetzeko sortutakoa da?

G.U.: Normalean taldeek duten dinamika asko ez ditugu guk (entseguak, ordutegiak finkatzeko beharra, material handia...), beraz, musika talde baino kantuan gabiltzan bikotea gara. Elkartzen garenean badugu halako zubi eder bat gure artean, eta hori betiereko altxor bat da guretzat, zuzenean gehiago edo gutxiago jo arren.

Gonbidatu herritarrek Sarobeko kontzertura hurbiltzera.

G.U.: Urnietako zenbait txokotan ibili gara jada baino Sarobeko hitzordua berezia izango da, oholtzan lagun izango ditugunez gain, betiko indar eta ilusioz kantatuko baitiogu bizitzari! Hortxe gonbita!

Udaleku irekiak ekainaren 26tik uztailaren 28ra

Udaleku irekietarako hezitzaileak behar dira

Urnietako Udalak antolatutako aurtengo **Eguzkitan blai!** udaleku irekietarako hezitzaileak behar ditu, eta datorren maiatzaren 5era bitarte izena emateko epea zabaldu du. Interesatuak "Kurrikuluma" hitza aipatuz emaila idatzi behar dute urnieta.udalekuak@urtxintxa.eus helbide elektronikora.

Eguzkitan blai! udalekuen egutegia ekainaren 26tik uztailaren 28a bitartekoa izango da. Udaleku irekietan lan egiteko izen-ematen duten pertsonen hiru baldintza bete beharko dituzte:

1. Hautaketa prozesua gainditzea. Horretarako maiatzaren 19an, arratsaldeko 18:00etan hasita Arantzubi-ko eraikinean talde elkarrizketan parte hartuko dute. Eta ondoren, talde elkarrizketa gainditzen duten pertsonen kurrikulumen baremazioa egingo da, hezitzaile hautatuen zerrenda osatzeko.



Udan begirale aritzeko deialdia luzatu dute.

2. Hautaketa prozesua gainditu eta udalekuetan lan egingo duten pertsonen ekainaren 16an eta 17an Pasaiaiko Arrokaundieta aterpetxean prestaketa asteburuan parte hartu beharko dute. Nahitaezkoa izango da asteburuan parte hartzea: Ostiralean 17:00etatik 21:00etara prestaketa saioa, afora eta

gaua. Larunbatean 9:30etik 14:00etara bigarren saioa, bazkaria eta 15:30etatik 19:30etara ikastaroaren amaiera.

3. Udalekuetan lan egingo duten pertsonen datorren ekainaren 21ean arratsaldeko 18:00etan hasita deituko duten guraso bileran egon beharko dute, nahitaez.

Aste Santuko tailerrak



Oinak airean egitasmoa aurtengo Aste Santuan, Saroben.

Sarobeko ikastaroetan parte hartze zabalda izan da. Urnietarran aldetik, beraz, erantzun ona jaso dute. Ardura-dunek datuak eskaini dituzte:

DANTZA FAMILIAN

21 haur, familiartekoekin batera aritu ziren hiru egunez dantzaz eta mugimenduaz gozatzen. Egunerokotasunetik aldentzen den pro-

posamena izan da, zeinean gorputz adierazpena, jolasa, musika, sormena eta komunikazioa landu diren.

OINAK AIREAN

Oihal akrobatikoetara hurbiltzeko aukera izan dute hogeitaz gazteak. Zirko eremuko jarduerak indarra edota gorputz mugimenduak lantzeko aukera eskaintzen du.

Liburuak dohainik

Liburutegian dohaintzan jasotako liburuak banatuko dituzte, ostirala bitarte. Bazkide ba-

koitzak gehienez 3 liburu hartzeko aukera izango du, erabiltzaile txartela aurkeztuta.

Udalekuak

URNIETA 2017















T. 943 00 80 00
943 00 80 33
udalekuak@urnieta.eus
www.urnieta.eus

IZENA EMATEA
Apirilaren 24tik maiatzaren 5era



LIBURUAREN EGUNA

★ Urnieta ★

POSTUA • 11:00 - 14:00
• SANJOAN PLAZA

Euskal liburuaren salmenta. Maiatzaren 26ko Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldirako sarrerak. Sarobeko kontzerturako sarrerak.

**LARUNBAT
HONETAN**

• 19:00
• SAROBE **KONTZERTUA**

3
euro

LAPPA (Urnieta)
LEAR (Urnieta)
BI ZALDI (Donostia).

SARRERAK SALGAI. Apirilaren 24tik aurrera: Xauxar eta Bikain (Sanjoan plaza). Egunean bertan: leihatilan, 18:00etatik aurrera.

APIRILAK 29, LARUNBATA



Antolatzaile:



Laguntzaile:



2017, apirila



Jaiak

hastear



AIURRI

JAIEN
JARRAIPEN
ZEHATZA
WEBGUNEAN




Taberna arteko pintxo lehiaketaren edizio berria maiatzaren 3an, jaien azken egunean

AZKEN URTEOTAKO PINTXO IRABAZLEAK



2016 | HIRU



2015 | BASTERO



2014 | TRAINERUM



2013 | URKIOLA

JAI BATZORDEAK PINTXO LEHIAKETAREN BOSGARREN EDIZIOA ANTOLATUKO DU AURTENGO JAIETAN. HAMABOST TABERNEN PARTE HARTZEA ZIURTATUTA DAGO. GUTIZIAK JANEZ AMAITUKO DIRA AURTENGO JAIK.



2016ko irabazlea

Hiru Jatetxeko Ane Etxeberria pintxoaren egileak berak jaso zuen iazko sariari dagokion oroigarria Maitane Lopez de Munain Urrats inprimategiko kidearen eta Eneko San Jose Jai Batzordeko kidearen eskutik. "Arkume rissoto faltsua berenxena kraskaria" izan zen Hirukoen pintxoaren izenburua.

V. PINTXO LEHIAKETA

ANDOAIN. Maiatzaren 3an:

Txalaka
Txitibar
Zeru
Amama Klaudia
Muga
Xaxi Metro
Txuri Beltz
Gaztelutxo
Txindoki
Irunberri
Traiñerum
Urkiola
Hiru jatetxea
Tokitxo
Bastero

Irabazleak:

2016 Hiru
2015 Bastero
2014 Traiñerum
2013 Urkiola



2015eko irabazlea



2014ko irabazlea



Sei egunez luzatuko diren ospakizunak, apirilaren 28tik maiatzaren 3ra

JAIK GAINEN DIRA ETA HORRENBESTEZ ANDOAIN FESTA GIROAN MURGILDUKO DA HAINBAT EGUNEZ. HAUR PREGOIAREKIN HASIKO DIRA JAIK ETA AURTENGOARI ZEZEZN SUZKOAREKIN AMAIERA EMANGO ZAIO.



Apirilak 28, ostirala

Jaien hasiera

- 16:00 Haur pregoia Zumea plazan.
- 16:30 Txokolatada Zumea plazan.
- 17:00 Judo eta karate erakustaldia Zumea plazan. Euria eginez gero, Ondarreta ikastetxean.
- 18:30 Puzgarriak Zumea plazan. Euria eginez gero, Ondarreta ikastetxean.
- 19:00 Buruhaundi eta erraldoiak Zumea plazatik hasita.
- 19:00 Gora Kaletxiki txaranga, Basterotik hasita.
- 19:00 Zumeatarrak elkartearen danborrada Zumeatarratik hasita.
- 19:30 Pregoa Zubiaurren.
- 20:00 Txosnen irekiera.
- 20:00 Giza proba: Andoain vs Gros vs Intxaurren Bekoplazan.
- 23:30 Cloverwind eta Oharkabe txosnatan.

Apirilak 29, larunbata

Auzo bazkaria, erreka jaitsiera

- 08:00 Gaupaseroen argazkia Espigoian.
- 09:30 Haurrentzako arrantza lehiaketa Espigoian. Federatu txartela ez duenak bertan ateratzeko aukera izango du.
- 12:00 Kantu kalejira Basterotik hasita.
- 14:00 Auzo bazkaria, bakoitza bere bazkariarekin Kale Nagusian. Euria eginez gero Makaldegiko aterpean. Ondoren, La Jodedera.
- 17:30 Erreka jaitsiera Etxarritik hasita.
- 18:00 Haur tailerrak, jolasak eta puzgarriak Zumea plazan. Euria eginez gero, Ondarreta ikastetxean.
- 19:00 Elektrotxaranga txosnatan hasita.
- 19:30 Bakailao txapelketa Kale Nagusian.
- 22:30 Peña Santa Krutz elkartearen danborrada, elkartetik hasita.
- 00:00 Potentor eta Ingo al deu? zuzenean.

Apirilak 30, igandea

Sagardo lehiaketa

- 10:00 Herriko artisauen azoka Zumea plazan.
- 11:30 Urki dantza taldearen kalejira eta emanaldia Zumea plazan.
- 13:00 Andoingo banda eta Mugaz gazte taldearen kontzertua, Li dendaren parean.
- 17:00 Soinuak taldearen kalejira Basterotik hasita.
- 18:00 Sagardo lehiaketaren XXXI. edizioa Zumea plazan.
- 18:00 Basataloak talogileak Zumea plazan.
- 20:00 Txistularien kontzertua, Trikitilariak, Alberto Agirre abesbatza Santa Krutz elizaren parean.
- 23:00 Willis Drummond eta Bad Sound System taldeak txosnatan.

Maiatzak 1, astelehena

Kros herrikoia

- 10:30 XXXII. Kros herrikoia Bixente Huizi memoriala Bekoplazan.
- 11:30 Haur krosa Zumea plazatik.
- 12:30 Txirrindulari lasterketa Leizaur parkean.
- 17:00 Marsel magoa haurrentzat Zumea plazan.
- 18:30 Herri danborrada, Bekoplazan hasita.
- 19:00 Txalaparta ibiltaria eta bertso poetoa, Zumea plazatik hasita.
- 19:00 VI. Bizikleta festa Zumea plazan.
- 19:00 Dukha, The WC Grooves, Ixo! eta Natural Project Andoingo musika taldeak txosnatan.

Maiatzak 2, asteartea

Koadrilen bazkaria

- 11:00 Koadrillen kalejira, Bekoplazan hasita.
- 14:30 Koadrillen bazkaria Bekoplazan. Mahaia jaso eta gero, zozketa berezia.
- 17:30 DJ Bull, Bekoplazan hasita.
- 20:30 Karaokea txosnatan.

Maiatzak 3, asteazkena

Pintxo lehiaketa, Zezen suzkoa

- 10:30 Dultzainerok kalean zehar.
- 10:30 Ikurriñaren jaitsiera, eskopeteroek lagunduta, udaletxetik hasita.
- 10,30 Ezpata dantza Santa Krutz elizan.
- 11:00 Meza santua Santa Krutz elizan.
- 11:30 Ezpata eta brokel dantzak Santa Krutz elizaren parean.
- 11:30 Trikitilariak kalean zehar.
- 12:00 Txakolin dastaketa Santa Krutz elizaren parean.
- 16:30 Kale hezitzaileekin jolasak, Zumea plazan.
- 19:00 Tabernen arteko pintxo lehiaketa, Zumea plazatik hasita.
- 19:00 Andoingo txistularien kalejira, kalean zehar.
- 19:00 Fino's band txosnatan.
- 20:00 Patxi eta konpainiarekin, plaza dantzak Zumea plazan.
- 21:00 Zezen suzkoa Zubiaurretik hasita.

Egitaraua egunez egun

www.aiurri.eus

Webgunean eta sare sozialetan. Baita bezperako argazkiak eta bideoak ere.

111AKADEMIA:REN SARIA 2016


Idazle saritua:
Kirmen Uribe



Maiatzaren 11n, ostegunarekin arratsaldeko 19:30etan

Elkarrekin esnatzeko ordua eleberriagatik

Andoingo Bastero Kulturgunean.
EKITALDI IREKIA.



Giza proba

DESAFIO ETA GUZTI IRITSIKO DIRA JAIK. ANDOINGOEK DONOSTIALDEKO BI LEHIAKIDE IZANGO DITUZTE.



Andoingo zortzikotea, aurreko asteburuko prestaketa saioan.

Kaleberrian, Bekoplaza inguruan, errepidea moztu egingo dute giza probari tartea eskaintzeko. Andoain, Gros eta Intxaurrendoko hiru zortzikote harrari tiraka arituko dira 10 minutuko saiotan. 20 metroko tartean, ea nork metro gehien egin, horixe izango da desafioaren muina.

Iaz aizkora desafioari tartea eman zieten jaien hasieran, eta aurtengoan giza probari. Txupinazioaren eta gaeko parrandaren artean dagoen ordu horietan Jai Batzordeak ikusmin handia sortu duen jarduera antolatuko du. Animo gehienak, nola ez, etxekoek jasoko dituzte. Zorte on!

Bad Sound System

WILLIS DRUMMOND TALDEAREKIN BATERA ZUZENEAN ARITUKO DA IGANDE GAUEAN.



Bad Sound System.

Rocka eta dantza giroko gaua izango da igandekoa, **Bad Sound System** taldeak osatuko baitu igande gaueko musika eskaintza. Hip Hop, reaggae eta beste musika estilo ezberdinak uztartzen dituzte eta beste herrietan egin bezalaxe, Andoainen ere ikusle-goa dantzan jarriko dute.

Aurtengo kontzertua, beraz, kalitate maila handikoa izango da. Aurtengo berrikuntza maiatzaren 1eko ilunabarrean iritsikoda, herriko taldeen emanaldiarekin. 19:00etan hasita, **Dukkha, The WC Grooves, Ixo!** eta **Natural Project** taldeak Bekoplazan zuzenean ikusteko aukera izango da.

Merkatu plaza

MAKALDEGIAN BARRAKAK IPINIKO DITUZTENEZ, MERKATU PLAZA GOIKOPLAZAN OSPATUKO DA.



Barrakak ipini dituzte Makaldegian eta hori dela eta merkatu plaza Goikoplazan izango da.

Apirilaren 29ko, maiatzaren 2ko eta maiatzaren 6ko merkatuko hitzorduak tokiz aldatuko dituzte, Santa Krutz jaiak tarteko. Izan ere, apirilaren 24az geroztik barrakak ipini dituzte Makaldegian eta hori dela eta merkatu plaza Goikoplazan izango da. Azken hilabeteotan Goikoplazan maiz antolatu izan

dute merkatu plaza, Makaldegia bera eraberritze lanetan izan zelako. Orain, ordea, jaiak direla eta, Goikoplazara mugituko dituzte merkataria.

Merkatu plaza Goikoplazan:

- Apirilak 29, larunbata.
- Maiatzak 2, asteartea.
- Maiatzak 6, larunbata.

Aiurri.eus

JAIEN JARRAIPEN ZEHATZA EGINGO DU AIURRIK WEBGUNEAREN ETA SARE SOZIALEN BITARTEZ.



Erreka jaitsieraren argazkiak eta bideoa sarean eskegiko den hitzorduetariko izango da.

Aiurriko lantaldeak jaiaren jarraipen zehatza egingo du, aurtengo jaietan ere. Txupinazorekin hasi eta zezen suzkoa iritsi bitarteko sei egunetako egitaraua egunez egun zabalduko da, eta noski hitzordu horiei loturiko argazkiak eta bideoak. Aiurri.eus webgunea, Facebook, Youtube eta Twitter sareen bitartez

igarotako hitzorduen berri emango da. Urteak dira Aiurriko lantaldeak jaien jarraipen zehatza egiten duela. Jaiak iritsi bitarte, nahi izate aldera, sarean eskuragarri ditu aurreko urteetako argazkiak eta bideoak. Besteak beste, txupinazioa, erreka jaitsierak, desafioak, danborradak,...

ERABAKITZE ESKUBIDEAREN ALDEKO EKIMENA ANDOAINEN

Andoain Esan herri ekimenaren aurkezpena

Andoaindar talde batek Euskal Herri osoan zabaltzen ari den erabakitze eskubidearen aldeko "olatua" rekin bat egin nahi du, eta Andoain Esan izeneko ekimena martxan jarri du. Larunbatekoa

izan zen jendaurreko lehen ekitaldia, eta hitzordu hartara dozenaka lagun hurbildu zen. Denera, laurehun izan zitezkeen. Udazkenean herri galdeketa egin nahi dute.

Durango-Iruña duela hiru urteko giza-kate erraldoia eta "Oihalak ehunduz" ekimena izan dira erabakitze eskubideari loturik Andoainen bideratu diren ekimenak. Oraingoan urrats handia eman nahi dute aurrera, herrian bertan herri kontsulta antolatuz. Goikoplazan larunbatean egin zuten adierazpenean andoaindarrak subjektu politiko izatea aldarrikatu zuten: "Herritarrok erabaki ahal izatea aberasgarria izan daitekeela pentsatzen dugu, sentsibilitate ezberdinak ditugun arteko eztabaidak piztu daitezkeelako. Aldi berean adostasunak hitzartu eta konplizitateak sortzea eragin dezake eta azken batean herritarren artean gogoeta sustatu etorkizunean zer nahi dugun izan argiago jakin dezagun. Herritarrok erabaki ahal izatea arduraz eta erantzukizunez jokatzeko da, gure herriaren etorkizuna besteen esku utzi beharrean. Herritarrok erabakitzea izan daitekeen ariketa demokratikorik osasuntsuena izan daitekeela pentsatzen dugu".

Argazkiak, bideoa: Aiurri.eus



Ehunka lagun bildu zen Goikoplazan, Andoain Esan ekimenaren jendaurreko aurkezpen ekitaldian.



Giza-katea egin zuten bertaratu zirenek, Goikoplaza osoa hartuz.



Ekitaldia amaituta, sinadura bilketari ekin zioten. Datozen asteetan sinadura emateko aukera izango da.



KIROL ALBISTEAK

Ostiral honetan Saroben



Alex Txikon mendizalea Urnietan izango da, ostiral honetan.

Nanga Parbat eta **Everest** mendietako neguko ahalegi-
nean bizitako esperientzia
kontatzera dator Urnietara,
Alex Txikon mendizale ezagu-
na. Saroben izango da, ilun-
tzeko 19:00tan hasita, Zan-
patuz mendi taldeak eta Ur-
nietako Udalak antolatuta.

Alex Txikon negu honetan
Everest munduko mendi gara-
rienean saiatu zen (8.850
metro), baina Hego Leporai-
no iritsi zen, 8.000 metroko
mugara, haizeak aurrera egi-
tea ezinezko egin zuen arte.
Aukera paregabea neguko
espedizioen berri jakiteko.

Denboraldi borobila



Mikel Alonso urnietarra, Markinako Sabin Forua Oroimenezkoan.

Indurain saria, Errioxako
itzulia eta nazioarteko hain-
bat proba profesionalen ar-
tean egin eta gero, urnieta-
rrak Euskadi fundazioaren

mailota jantzi zuen berriro
eta Markinan garaipen ber-
ria eskuratu zuen. Denbo-
raldi borobila burutzen ari
da.

Finalaurrekoa jokatu dute



Urnieta Altuna autobusak infantil taldeak 27-24 menderatu zuen Ereintza, eta horri esker Gipuzkoako Txapelketako finalaurrekoetara sailkatu da.

Urnietar gazteak Nafarroan garaipen bikaina eskuratu zuen

Xuban Ezeizaren garaipena Arantzako mendi lasterketan

Xuban Ezeiza gazteak garaipen
ikusgarria lortu zuen aurreko
igandean, Nafarroako Arantza
herrian antolatu zuten bigarren
mendi lasterketan. 201 korrika-
larik osatu zuten 1300 metroko
desnibel gogorra duen lasterke-
ta, eta urnietarra izan zen lehena
helmugaratzen. Ez zuen nora-
nahiko aurkaria izan parean, iaz-
ko edizioaren garaile **Joseba Lar-
ralde** beratarra atzean uztea lor-
tu baitzuen. Zortzi segunguko
aldea atera zion, beraz, biek ere
buruz buruko estua izan zuten.
Mihura baztandarra bi minutu lu-
zera hirugarren sailkatu zen.

SAN MARKO LASTERKETA

Jokin Lizeaga handiarekin bate-
ra, urnietarrak maila bikaina
eskaintzen ari dira lasterketa
ezberdinetan. San Markos gor-
torlekuaren inguruan egiten
den mendi lasterketan, **Mikel
Costas** urnietarra txapeldun-or-
de izan zen.



ARANTZAKO MENDI LASTERKETA

2017.04.23. Arantza (Nafarroa).

Ibilbidea: 20 kilometro.

Helmugaratuak: 201.

1	1:42:53	Xuban Ezeiza
2	1:43:01	Joseba Larralde
3	1:45:42	Iñaki Mihura

Urnietarrak:

47	2:06:44	Unai Martinez
102	2:24:29	Mikel Etxezarreta
131	2:31:38	Xabier Ansa
136	2:34:09	Tomax Pellejero

Andoaindarrak:

54	2:09:10	Vanessa Pelaez
190	2:55:35	Maidar Lizarraga

SAN MARKO MENDI LASTERKETA

2017.04.23. Erreterria (Gipuzkoa)

Ibilbidea: 11,6 kilometro.

Helmugaratuak: 101.

1	56:31	Xabier Lukin
2	57:20	Mikel Costas
3	57:37	Jokin Egurbide

Urnietarrak:

18	1:05:18	Jon Labaka
51	1:14:59	Mikel Olano
64	1:19:07	Elena Santervas
70	1:21:02	Jonathan Lopez

Andoaindarrak:

13	1:03:49	Antonio Jimenez
57	1:16:32	Aitor Aramendi

Santakruzak amaitu eta hurrengo asteburuan hasiko da

Iturzaeta pala txapelketa herrikoiaaren edizio berria

Iturzaeta pala txapelketa herrikoiaren parte hartu nahi du-
nak ahalik eta azkarren izena
eman behar du, maiatzaren
5ean eta 6an hasiko diren parti-
datan jokatzeko. Arrate
pilotalekuan, Lanbroan, Elizon-
don, Irunberrin, Gaztelutxon,
Olajaunan edota Txalakan ize-
na eman daiteke, 12 euro or-
dainduta.

Ezaguna denez, pala txapel-
keta bikoteka jokatzeko da Sor-
billako pilotalekuan eta partai-
deek halaberrez Iturzaeta ka-
misetarekin jokatu behar dute.

Aurtengo finalean bi partida
jokatuko dira. Finala, noski, eta
horren aurretik atariko modura
ligaskan kanpoan geratu diren
bi bikoteen arteko beste bat.



Iturzaeta pala txapelketa herrikoia, iazko edizioan.

Zozketa bidez aukeratu dute
tuzte B final horretako partai-
deak. Kontsolamenduzko parti-

da horrek saria izango du, gai-
nera. Irabazten duenak Txala-
kan afaria irabaziko baitu.



KIROL ALBISTEAK

Lehen urratsa, igoyeraren bidean

Emozioz beteriko partida izan zen joan zen larunbat arratsaldean Urnietak eta Egiak jokatu zutena, harmailak zaletuz lepo beterik zegoela. Majo sufritutako garaipena izan zen, donostiarrek ez zutelako

erraz etsi. Azken minutura arte ez zen partida argitu, urnietarren bi golen bitartez eta donostiarrek huts egindako penalti jaurtiketari esker. Urnieta KEk play-offean lehen urratsa eman du aurrera.



Azken golarekin arnasa hartu zuten zaletuek. Irudian Josu Pagola, urnietarren 23. gola sartu zueneko.



Egoitz Karracedori abiadura hartzeko metroak emanez gero, aukera ziurra da. 21-20ekoa, irudian.



Partida kiroltasun osoz jokatu zen. Irudian Julen Garcia aurkariari bostekoa emanez. Jimenez, pozarren.



Jokalariak iskin batean zeuden zaletu animosoengana hurbildu ziren lehenik, eta ondoren harmaila guztiak bete zituzten zaletuei kantxa erditik eskerrona adierazi zieten. Argazkiak, bideoa: www.aiurri.eus.

Jendez lepo zegoen Urnietako kiroldegia, larunbat iluntzean. Eta zorionez festa betean bukatu zuten, denek bat eginez. Aurretik amaitzen ez zen ordu-bete luzeko partida jokatu zen, kiroltasun osoz igaro zena. Urnietarren babes beroa eman zieten gorritxoei, jokoan zegoena oso garrantzitsua zela jakitun zire-

larik. Bigarren nazional mailarako play-offa oso gogorra izango da eta etxean huts eginez gero, aukerarik gabe geratzeko arriskua oso handia da. Horregatik zen hain garrantzitsua irabazten hastea.

Partidan **Urnietak KEk** aurkariak baino bi gol gehiago egiten asmatu zuen (23-21). Zirrara handikoa izan zen. Zertxoait lehe-

nago, **Egoitz Karracedok** gol ikaragarriarekin 21-20ekoa ipini zuen markagailuan. Partida hortxe irabazten hasi ziren. Gol psikologikoa izan zelako. Zaletuak zeuden ertzean baloia jaso eta erdigunera jo zuen irmo, aurkariak erakarrit. Altuera handikoa eta gorputz sendokoa, abiadura hartzeko utzi zizkioten metroei esker indar

bizia hartu zuen jaurtiketa bota zuen. Geldiezina izan zen. Harmailak erortzean zirela zirudien, garaipena hortxe lortzen hasi ziren. Ordura arte, berdinketa nagusi izan baitzen denean: joko trabatuan, urduritasunean,... Azken minutuan Urnietak hobeto jokatzen asmatu zuen. **Josu Pagolak** 23. gola sartzean, zoramena izan zen.

Urnietako Udal antzerki tailerrak aurkezten du:
PENTAGRAMA-ENEA



Mikel Agirregomezkortaren zuzendaritzapean



Maiatzak 7, igandea. 17:30. Sarobe. Sarrera: 3 €.

Dagoeneko salgai Sarobeako bulegoan, eta txarteldegian emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago





KIROL ALBISTEAK

Eula, herri kirolarien bilgunea

Joan zen apirilaren 15ean, Juan Iguaranek antolatuta, Eula sagardotegian egindako bazkari baten bueltan elkartu ziren urteroko legez, Euskal Herri osoko hirurogeita hamar herri kirolari. Bazkalos-

tean, Aiurrik hainbat kirolariren iritziak jaso zituen. Zehazki, hiru txapeldun handienak: Mindegia aizkolaria, Arria II aizkolaria eta Zelai harrijasotzailea.



Eulan bildu ziren herri kirolarien taldeko argazkia.

Mikel Mindegia

(1949, Ezkurra) Aizkolaria

Munduko txapeldun Euskal Herriko taldearekin, behin. Espainiako txapeldun, behin. Euskadiko txapeldun, bederatzik aldiz. Nafarroako txapeldun, hamar aldiz. Eta beste hainbat txapelketetan jantzitako txapelak kontaezinak dira.

Noiz hasi zinen aizkoran?

Mikel Mindegia: Baserrian txikitatik lanean zaildutakoa naiz, anaia zaharragoak ere aritzen ziren aizkoran eta giro horretan hasi nintzen. Konpetiziorako afizioa handia zegoen garai hartan, eta nik ere gustukoa nuenez, ondo prestatu eta oso gazetetik hasi nintzen nabarmen. Hamasei urterekin atera nintzen aurrenekoz plazara Ezkurrako jaietan.

Zein da aizkolaria ona izateko sekretua?

M.M.: Gorputza erabiltzeko manera, gorputz osoa erabili behar da, burutik hasi eta hanketako azkaleraino, ez besoak bakarrik.

Eta hori lortzeko berezkoa ere behar da, pixka bat.

Aizkorak poz asko eman izan dizu.

M.M.: Bai, poz asko eman izan dizkit, bestelakoak ere bai tarteka. Irabazitako apustu bakoitzaren atzean, txapel bakoitzaren atzean lan izugarria dago, baina momentua iritsitakoan asko disfrutatzen nuen.

Nola ikusten duzu oraingo aizkolaritza?

M.M.: Gazteek akats handiak dauzkate, teknika ez dute oso egokia, kirolari onak dira baina lanerako taju onik ez dute.

Gure markatara ezin iritsirik dabilta, eta kosta egingo zaie.



Mindegia.

Jose Ignazio Orbeago "Arria II"

(1945, Azpeitia) Aizkolaria

Euskal Herriko taldearekin munduko txapeldun, 4 aldiz. Espainiako txapeldun, 4 aldiz. Euskadiko txapeldun, 4 aldiz. Gipuzkoako txapeldun, behin. Euskal pentatloian ere (Joxe Mari Mendizabalekin). 1987an 41 urterekin utzi zuen aizkora.

Nondik sortutakoa zen aizkorarako afizioa?

Arria: Aita aizkolaria handia izandakoa nuen, baina ez ninduen askorik bultzatzen horretara, amak, berriz ez zuen nahi, ez baitzitzaizkion gustatzen aizkolarien ibilerak. Nire gisa ekarri nuen afizioa.

Apustu munduan oso ezaguna izan zinen. Nola ikusten duzu oraingo apustu giroa?

A.: Apustu batzuk jokaturakoa naiz bai, hasieran arazoak izaten nituen lan luzeekin, baina gero hobeto moldatzen nintzen. Orduko apustu girorik ez dut



Arria.

ikusten, orain jendeak beste afizio batzuk dauzka. Urrezko Aizkora eta exhibizioak hor daude, eta kirola galduko ez bada erecapustuen mundua ia galdu da.

Atzerrian ere erakustaldi ugari egindakoa zara.

A.: Batez ere Australian eta Ameriketako Estatu Batuetan. Oroitzapen politikak ditut, gustura joaten ginen, harrera bikaina egiten ziguten.

Jose Antonio Gisasola "Zelai"

(1958, Mallabia) Harrijasotzailea

Euskadiko txapeldun, 16 aldiz. Bizkaiko txapeldun, 12 aldiz.

Txapeldun handia izandakoa zara, baina zure izenik ez da ageri herri kirolean hain ohiko diren apostuetan?

Zelai: Garai haietan apustuak egitea ezinbestekoa zen ezagutzera emateko eta nik bakarra egin



Zelai.

nuen Aretxa II.aren aurka. Irabaztea suertatu zen, baina oso gaizki pasa nuen egunean bertan eta aurreko egunetan ere. Ez nuen gehiagotan apusturik egin. Txapelketak prestatu eta markak jartzen aritu nintzen.

Zure markak oraindik gaintu gabe daude.

Z.: Bai, oraindik badaude gaintu gabeko markak. Baina ez nireak bakarrik, Perurena, Goenatxo, edo Ostolazak egindako markak inork ez ditu gaintu. Aimar Irigoien hor dago, baina gainontzean ez dut uste marka haietara inor arrimaten denik. Orain, gainera, beruna ere sartzen zaio harriari eta errazago jasotzen dira.

Nola zaude orain fisikoki?

Z.: Baserrian jaiotzen eta baserrian bizi naiz, beraz, gazetetik lanean zaildua. Harriak bizkarre-raino jaso behar dira eta belaunak eta abar sufritzen dute. Gazteak entrenatzen jarraitzen dut.



KIROL ALBISTEAK


Aizkora desafio ikusgarria

Uda giroko larunbat arratsaldea zen, eta hala ere dozenaka herritar herrian geratu zen bi gazteen arteko desafioa gertutik jarraitu asmoz. Eskarmentuak eta, bereziki, teknikak garrantzia handia du aiz-

koran eta lehenagotik trebatzen hasita zegoen Arizmendik desafioa irabazi zuen. Etxeberriak tarte txikia izan du prestatzeko, eta hala ere bikain aritu zen. Giro ezin hobea sortu zen Zumea plazan.



Unai Etxeberriak Jexux Mari Lasa Legorretako aizkolari ohia izan zuen laguntzaile.



Jon Arizmendik Joseba Otaegi aizkolariaren aholkuak jaso zituen, iazko desafioan bezala.

Jon Arizmendik Unai Etxeberria *Etxe* mendean hartu zuen Zumea plazan jokatu zen aizkora apustuan. Enborrak ebakitzeko teknika hobeari esker, hasieratik jarri zen aurretik lanean. Ikusmina piztu zuen bi andoaindarraren arteko desafioak, eta jende ugari bildu zen Zumea plazara. Arizmendik 18:58 minutuko denbora behar izan zuen kanaerdiko lau enbor ebakitzeko; Etxeberriak berriz, 25:38. Aurkariak baino ia zazpi minutu gehiago behar izan zituen arren, lan polita egin zuela aitortu behar da. Badu meritua mutilak, ez baita ahanzi behar orain bi hilabete eta erdi hartu zuela lehenbiziko aldiz aizkora eskuetan.

Afaria zegoen jokoan, baina horren gainetik azpimarratu behar da aizkorarako eta herri kiroletarako zaletasuna zabaldu zela arratsalde horretan.

Apustua amaitu eta gero, biek ere egindako lanagatik nahiko asebeteta bukatu zutela aitortu zuten. Nork bere arrazoiak zituen horretarako, jakina.

Nahiz eta lehia galdu, aizkora hasi berria den Etxeberriari bere burua neurtzeko balio izan zion desafioak: "Korteetan kostatu egin zait, baina hala

ere, ez noa haserre etxera, ez bainuen uste lau kanaerdikoekin ordu erditik ia bost minutuz jaitsiko nintzenik. Bi hilabete eta erdi eduki ditut aizkora hartu eta zailtzeko, eta ez dakit gehiago egiterik ba ote dagoen...".

Zumea plazako ikuskizuna ere azpimarratu nahi izan zuen Etxeberriak: "Akaso plazara etorri diren lagunak eta ikusleek gehiago esperoko zuten niregatik, baina iruditzen zait Arizmendik eta biok kirol ikuskizun polita eskaini dugula eta ez zirela damutuko".

Arizmendik, bere aldetik, aizkora oso erraz aritu zela aitortu zuen: "Oso gustura aritu naiz, urduritasunik gabe. Aise atera zait aizkora eskuetatik. Ez diot gehiegi erreparatu Unairi, baina iruditzen zait gaurkoan fisikoak baino garrantzi gehiago eduki duela aizkorakada bakoitzarekin emandako kolpeak. Ikusleek-eta batzuetan uste izaten dute astopetroen kirola dela eta soilik indarra behar dela, baina gauzak ez dira horrela". Aizkora munduan jarraitzeko asmoa ote duten ala ez galdetuta, aurrerago erabakiko dutela erantzun zuten biek ere. Ikuskizun ederra eskaini zieten andoaindar askori, aurreko larunbatean.



Irabazleak Keinu dendan egindako txapela jaso zuen, Ana dendariaren eskutik.



Jon Arizmendik eta Unai Etxeberria, lehia jokatu ostean.



Unai Etxeberria, animoak etengabe eman zizkion koadrillarekin.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri: Ete ez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra: Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus **Webgunea:** www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus **Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua: Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus **Publizitatea:** Fernanda Irazu. publikitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus www.aiurri.eus **Lege Gordailua:** SS-1078/04. **ISSN:** 1698-4870. **Tirada:** 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

Banatazaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

APIRILAREN 27TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain, Bastero

- **El bar**
Lar, 29. 19:30-22:00.
Ig, 30. 19:30.
Astl, 1. 19:30-22:00.
Haurrak: **El bebe jefe**.
Api, 30. Mai, 1. 17:00.

Hitzaldia

Urnietan

- **Alex Txikon** mendizalearen hitzaldia.
19:00 Sarobe.
Apirilak 28, ostirala.

Ikuskizunak

Andoain, Bastero

- **Pupu eta Lore: Haizearen herri.**
17:00 Auditorioa.
Maiatzak 13, larunbata.

Urnietan

- **Pirritx, Porrotx eta Marimotots** pailazoaren emanaldia. Egape ikastolako jolastoki estalian. Sarrerak apirilaren 29an salgai, San Juan plazan, Liburuaren egunean. 17:00 Egape. Maiatzak 26, ostirala.

Deialdia

Urnietan

- Udaleku irekietan begirale aritzeko deialdia. Informazioa, 6. orrialdean. Epea: Maiatzak 5.

Musika

Urnietan

- **Lappa, Lear eta Bi zaldi** taldeak zuzenean Urnietako Liburuaren egunean. 19:00 Sarobe. 3 euro. Apirilak 29, larunbata.
- **Musikazuzenean** webgunearen emanaldia, hainbat kantariren parte hartzearekin. 19:00 Sarobe. Maiatzak 21, igandea.

Andoain

- **Bad Sound System eta Willis Drummond** taldeak. 23:00 Bekoplaza. Apirilak 30, igandea.
- **Dukkha, The WC Grooves, Ixo!** eta **Natural Project** taldeak. 19:00 Bekoplaza. Maiatzak 1, astelehena.
- **DJ Bull Koadrillen** egunean. Bazkalostean. Maiatzak 2, asteartea.

Antzerkia

Urnietan

- Urnietako Udal antzerki tailerra: **Pentagrama enea**. 17:30 Sarobe. Maiatzak 7, igandea.

Andoain, Bastero

- **El brujo, misterios del Quijote** (Rafael Alvarez). 21:30 Auditorioa. Maiatzak 5, ostirala.
- **Francoren bilobarri gutuna**. 21:30 Auditorioa. Maiatzak 12, ostirala.

Jaiak

Andoain

- **Santa Krutz jaiak** Andoainen. Egitarau osoa eta azken albisteak **erdiko orrialdeetan**. Apirilak 28-maiatzak 3.

Desafioa

Andoain

- **Giza proba**, 8 laguneko hiru talderekin: Andoain, Gros eta Intxaurren. 20:00 Kaleberria. Apirilak 28, ostirala.

Farmaziak

Andoain

- **Zatarain**. Gazez: **Etxebeste** (Hernani). Apirilak 29,30, maiatzak 1.

Urnietan

- **Gomez Justel**. Kale Nagusia, 14. Hernani. Gazez: **Etxebeste** (Hernani). Apirilak 29 eta 30.
- **Etxeberria Azueta**. Andre kalea, 48. Hernani. Gazez: **Etxebeste** (Hernani). Maiatzak 1, astelehena.

Erakusketa

Andoain

- **Joserra Elorza** "Minus" mar-go erakusketa. Ohiko ordutegia, astelehenean ostiralerara. Ekainaren 3ra arte zabalik. Bastero, erakusketa gela.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Zorionak ama! Olaia alabak **Eider** Ugarte ama zoriondu nahi du apirilaren 28an, bere urtebetetzean.

ANDOAIN

ZORIONAK



Zorionak **Pello!** Apirilaren 29an 6 urte potolo beteko dituzu. Jarrai orain arte bezain jator. Maite zaitugu! Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Estitxuk 19 urte beteko ditu maiztaren 1ean. Zorionak aita eta amaren partetik. Ondopasa. Muxu handi bat!

URNIETA



OSO ERRAZA DA eta doakoa.

Zorion agurrak Aiurri astekarían: Emaila: diseinua@aiurri.eus WhatsApp: **619 163 537** Webgunea: www.aiurri.eus

Ezbehar larria geltokian



Igande arratsaldean gertatu zen ezbeharra.

Igande arratsaldean ezbehar larria gertatu zen Andoaingo tren geltokian.

Herriko 28 urteko gaztea bertan hil zen, trenak harriturik patuta.

Ehungarren urtebetetzea



Carlota de Jesus anderea ehungarren urtebetetzeko ospakizunean.

Carlota de Jesus Andoaingo herritarra ehun urte bete zituen joan zen larunbatean, eta, ohitura denez, **Ana Carrere** alkatearen eta **Ana Sanz** Gizarte Zerbitzuetako teknikariaren bisita jaso zuen. Senideekin ospatu zuen urtebetetzea, larunbatean zein astelehenean San Juan Baitatzailearen egoitzan.

Carlota Portugalen jaio zen, Almeida herrialdeko Vale de Mula herrian; Salamancarekin muga egiten duen lurraldean hain zuzen. **Luis da Silva**arekin ezkondu

zen bertan eta lau seme-alabek bere ama izan zuten: **Juan Carlos, Adela, Jose Luis** eta **Joaquin**. Nekazaritzatik bizitzera, eta horrenbestez Juan Carlos izan zen Gipuzkoara etorri zen familiako lehenbiziko kidea 1964an. Ondoren etorrri ziren gainerakoak. 1985ean Andoain jarri ziren bizitzen.

Carlota oso gazte geratu zen alargun, eta etxeetako garbitzaile gisa jardun zuen urtetan. Zahar egoitzan bizidana 2010. urtetik.

DATORREN AIURRI ASTEKARIA: MAIATZAK 4, OTEGUNA

ERAKUSKETA BASTERON

Joserra Elorza egilearen artelanez osatutako erakusketa joan den ostiralean ireki zen Basteroko erakusketa gela. Elementu xumeak erabiliz, irudi geometrikoak lantzea du gogoko Elgoibarko artistak, eta oihalean, kartoiaren eta paperaren erabiliz 35 margolan jarri ditu Basteroko erakusketa. "Pintura akrilikoa ari naiz jorrazten azken aldian, eta irudi geometrikoak erabiltzen ditut irudi eta espazioak eraikitzeko".

